

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

2013/6/7 | 385

- Garikoitz Nazabal eta Eider Olazar Elduaen
- Sortuko dira besteak
- Izar Galaktik
- Ikasleen txokoa: Manosvivas

TAKE,
25 urte
saskiratzen

Juanjo Alustizarekin solasean

ARABA
EUSKARAZ
2013
ARESKETA
IKASTOLA
AMURRIO

MIHIAN
KILI-KILI,
EUSKARAZ IBILI



ARABA
EUSKARAZ 2013


AMURRIO. EKAINAK 16, IGANDEA

AUTOBUSA

IRTEERA: 9:00ETAN TOLOSAKO ZEZEN PLAZATIK
ITZULERA: 19:00ETAN
PREZIOA: 12€ (BAZKIDEAK 10€)
IZEN EMATEA: GALTZAUNDIN



Nafarroa etorbidea, 9-9. beheko,
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
943 655 004
www.galtzaundi.com



aldama_tapia
aholkularitza

Foruen Etorbidea_7
20400_TOLOSA Gipuzkoa
Tel_943 650 375
Faxa_943 655 206
gtolosa@aldamatapia.com
www.aldamatapia.com

SUPEREKO

Zerbitzua eta kalitatea

Zure Tolosaldeako Super-a,
orain OnLine



<http://www.supereko.net>

Erosketak etxera eramango dizkizugu
Eskerrik Asko

Konbinatu

GRADUATUAK +
EGUZKITAKO
GRADUATUAK

97€

* kontsulta itzazu zure zentrora kanpainaren azalpenak. Errore berrak beste eskaintza batzuetan erabiliz.



San Frantzisko, 23 • Tel. 943 69 84 70 • TOLOSA

MULTIOPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
Helbidea: Nafarroa etorbidea,
6-behea.
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Telefona: 943 655 004
Faxa: 943 654 983
e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
Webgunea: www.galtzaundi.com
Koordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.
Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustín Arrieta, Antton Izaguirre, Manex Izaguirre, Ibon Artola, Unai Igartua, May Gorostiaga, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Eneritz Iraola, Josu Iztueta, Txarli Gesteira, Aritz Larreta, Begoña Aristi eta Zigor Agirrezabala

Publizitatea: Bidera Publizitatea
661 678 818 • aetxaniz@bidera.eu

Banatzaileak: Olatz Garmendia
Juankar Arregi

Zuzentzailea: Nora Olano
Maketazioa: Galtzaundi
Diseinua: Zigor Agirrezabala

Azala: Galtzaundi
Inprimategia: Antza.
Tirada: 4.500 ale
Lege gordailua: SS-906/91
Franko Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezket, Anoeta, Baliarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO
UDALA



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hezkuntza Politikako Sailburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

kutxa gizarte ekintza

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.

Galtzaundin azaldutako iragarleek diruz lagundu dute argitalpena.



Erreportaia: TAKE, 25 urtez saskiratzen

Tolosako Adiskideok Kirol Elkarateak bere 25. urteurrena azaroan beteko badu ere, dagoneko ospakizunetan murgilduta dago. TAKEren historia lehen eskutik ezagutzeko aukera izan du Galtzaundik, urte hauetan guztietan lehendakari lanetan aritu den Koldo Arsuaga hizlari izan baitu.

8-11. orrialdeak

Juanjo Alustiza (Alegia, 1966) Geografia eta Historia ikasketak burutu ondoren, duela 20 urte hasi zen lanean Ibarako liburutegian. Hasiera hartan, ikastolako gimnasioan kokatu zen liburutegiak ez zuen ez ondare, eta ez toki egokirik irakurleak erakartzeko.

Elkarriketa: Juanjo Alustiza

14-16 orrialdeak

	Iritziaren leihoa: Garikoitz Nazabal eta Eider Olazar Elduaen	4-5
	Sortuko dira besteak	6-7
	Eskualdeko albisteak: Izar Galaktik	12-13
	Koxk!: Koipe, olio eta hanturak	17
	Ikasleen txokoa: Manosvivas	18-19

Bi urtean erabil genitzakeen jertseak...



Garikoitz Nazabal
Gipuzkoako EHNEko kidea

Txikiak ginenean amak edo amonak beti hartzen zizkiguten galtzen barrenak. Bi urtetan erabil genitzakeen jertseak eta prakak erosten zizkiguten egin beharreko moldaketak egiteko. Zapaten zenbakia ere handiagoa izan ohi zen, horrela beste urtebeterako gutxienez erabiltzeko moduan genituen. Inoiz zapataren punta hutsa edukitzeagatik ihes egiteko arriskua izan eta kotoi zatiekin betetzen zizkiguten.

Arropa eta zapatekin egin beharreko murrizketak, ordea, norberaren neurrikoak izan ohi ziren eta etxean egiten genituen. Gerora jostunak askoz ere erosoagoak zirela ohartu ginen eta haiengana bidaltzen hasi ginen. Azken urtetan, ordea, haiek ere desagertu dira eta are erosoagoa izan dena egin dugu, zaharra bota eta berria erosi.

Lehen baliagarriak zitzaizkigun teknikak albo batera utzi eta besteek ezarritako musikarekin egin dugu dantza. Murrizketak ezarri dizkigute diru nahikorik ez dagoela esanaz, baina denon diru kaxan eskua sartu dutenei gurea dena itzultzera derrigortu gabe. Zintzo-zintzo ordaindu izan ditugu kontu guztiak, zerga guztiak, eta gainera, besteen borondate txarra ere guk ordaindu behar dugu.

Zergatik ez gara lehengora itzultzen? Murrizketak egin, egin, beharko dira, baina zergatik ez ditugu guk gure neurria egiten? Jertsea handiegia genuenean gure gorputzera moldatzen genuen, zergatik ez dugu berdina egiten? Gure esku ere badago, guregatik erabakitzen duten horiei zerutiar boterea ez baitiegu eman eta gure hitza entzutera derrigortuta baitaude. Gure beharren baitara egokitutako murrizketak exijitu behar ditugu eta inoren musikarekin dantza egiteari utzi.



Lana badugu, enplegua nahi dugu!

Emakumeek lana soberan egiten dute; etxetik kanpo edo lan merkatuan eta edo hemen ez bada ere, etxe barruan, eremu pribatuan, eta bereziki ingurukoen zaintza-aren ardura nagusia hartuz (haurrak, adinekoak, senideak). Kontua da lan hauek ez dutela aitortzarik. Zeinek ez du entzun bere inguruan “Nere amak ez du lanik egiten” bezalako esaldirik? Enplegua edo soldatapeko lana duen askok baino lan gehiago egiten du ordea, emakume bat baino gehiagok! Eta hamaika dira norberarentzat baino besteentzat bizi direnak. Noski, sistema kapitalista patriarkalak bada-ki hori baliatzen. Oso merke ateratzen zaio egun oraindik emakumeek egiten jarraitzen duten lan hori dena, dohainik ateratzen baitzaio hain beharrezkoa duena eta ezinbestekoa dena bizitzaren iraunkortasunerako. Egungo sistema kapitalistaren oinarria den eskola neoklasikoko fundatzaile Alfred Marshall (1842-1924) esandakoa da, “enpleguaren truke emakumei ordaindutako soldatak baxua izan behar du, gogoa hoztu eta etxean gera daitez-zen”.

Emakumeak lan merkatuan sartzea ezinbestekoa izan da eskubideen aitortzan baina aldi berean ahanzturan eta era orekatuan banatu gabe geratu da eremu pribatuko lana, zaintza eta etxeko lana. Horrela, emakumeek zama bikoitza beregain hartuz eta modu ikusezinean gainera.



Eider Olazar Elduaen
Tolosaldeko Bilgune Feminista

Beste batzuen artean, lelo horixe oihukatu genuen pasa den greba egunean, maiatzaren 30ean, eta gure artean kezka sortu zitzaigun, ulertuko al da?

Izan ere, urtetan ahaztu izan dute hainbat mugimendu eta korrontek zaintza eta etxeko lana, marxismoak besteak beste. Ekonomia feministak berriz, honen errekonozimendua aldarrikatzeaz gainera ongizatearen erdigunean kokatzen du. Izeberg bat irudikatuko bagenu eta goian, uraren gainean, ikusten den horretan lan merkatua jarriko bagenu, azpian, ikusten ez den eremuan geratuko litzateke etxea eta zaintza. Hain zuzen, ikusten ez den hori eta azpian dagoen hori ezinbestekoa da goian dagoena eusteko eta mantentzeko. Izan ere, soldatapeko langile batek ezinbestekoa du bere oinarritzko beharri-zanak (elikadura, garbiketa...) bermatuta izatea merkatuan produzitzeko. Baina kontua da bigarren zati hau ezkutatu edo gutxienesten zaigula bes-

tearen alboan. Ikusi besterik ez dago gizarte baten jardue- ra ekonomikoa kalkulatzeko erabiltzen ditugun neurgailuak zein diren. Horietako bat eta zabalduena da BPGa (Barne Produktu Gordina), herrialde bateko ekoizpen-faktore desberdinek denboraldi jakin batean berenganatutako sar- reren batuketa egiten due- na. Honek, etxeko produkzioa deiturikoa, etxea eta zaintza alegia, ez ditu kontuan har- tzen eta beraz, hankamotz geratzen da herrialde oso ba- ten ongizate eta aberastasun errearen argazkia egitean. Badira neurgailu eta adierazle alternatiboak, erabiltzea bes- terik ez da geratzen. Urrutira joan gabe, gugandik gertu, proposamen zehatzak egin dituzte hainbat ekonomialari feministek, Amaia Perez de Orozcok, Nekane Juradok, Yolanda Jubetok edota Mer-

txe Larrañagak. Guztiek fi- nean zera defendatzen dute, bizitza eta pertsonak egon behar dutela sistemaren erdi- gunean, eta ez merkatuak eta kapitalak.

Baina zaintza eta etxeko lanaren aitortzaz gainera, ezinbestekoa da bai lana- ren, bai aberastasunaren eta baita enpleguaren banaketa egitea ere. Eta zer pentsatua eman beharko ligute, krisi garaiotan, gure guraso eta ai- ton-amonen borrokari esker lortutako hainbat eskubide galtzeko arriskuan gauden honetan, eta emakumeak eremu pribatura itzultzeko saiakeraren aurrean (berta- tik inoiz atera ez bagara ere), gure amek oihukatu zuten hura bera oihukatzen ari gara gaur egun: lana badugu, en- plegua behar dugu! Soberan ditugu borrokatzeko arra- zoiak.

Sortuko dira

“Sortuko dira besteak” Xabier Letek erabilitako esaldia izan zen, hortik abiatuta kontzertu bira sortu zen iaz Euskal Herrian.

Aurtengo bira Tolosatik abiatuko da, berritasunak berritasun. Ekainaren 21eko Leidorreko kontzertua berezia izango da: Joxan Lizarribarren omenez eskainiko da, KMK13 egitarauaren baitan kokatuta eta herriko hainbat eragileek babesa eskainita.

Joxanjel Arbelaitez, kontzertuaren promotoreak, kontzertuaren berri eman du.

tan, modu kolektiboan kantatzen. Horretaz mintzatu da Arbelaitez: “gure berezitasuna da punta-puntako artista hauek egun puntan jarraitzen dutenak direla”.

Honela, kontzertuko promotoreak “Sortuko dira besteak” ikuskizuna, AEBetan, urtean behin, Bob Dylan-ek eta Bruce Springsteen-ek batera eskaini dezaketen kontzertuarekin parekatu nahi izan du: “ez ohiko kontzertu bat da, Euskal Herri euskaldun osoa ordezkatzen duen kontzertua eskainiko dugu, lehen mailako kantariak dira guztiak”.

Azken batean, belaunaldi ezberdineko artistak dira Leidorren bilduko direnak eta horrenbestez publiko aldetik ere, Joxanjel Arbelaitez beste horrenbeste espero du; hau da, jende gazte zein heldua gerturatzeara. Sarrerak dagoeneko salgai daude 20 euroren truke Leidorreko leihatilan, Tolosako Plaza Berriko Lur-Lan denda-jatetxean eta interneten kutasarerrak.net webgunearen bitartez.

Joxan Lizarribar gogoan

“Sortuko dira besteak” 2013ko lehen kontzertu honetan antolatzaileek era berezi batean gogoan izan nahi izan dute Joxan Lizarribar, Berria taldeko lehendakari eta euskaltzalea, apirilean hildakoa. Joxanjel Arbelaitez berarekiko estimuaz mintzatu nahi



Leidorreko taula gainean euskal musikari ospetsuenera asko bilduko ditu “Sortuko dira besteak” biraren lehenkontzertuak: Mikel Urdangarin, Petti, Olatz Prat, Arantxa Irazusta, Alex Sardui, Mixel Ducau, Harkaitz Cano eta Eñaut Elorrieta. Askok iazko kontzertuetako ahots berdinak baina aurtengoak izen berriak ere ekarri-

ko ditu: Mixel Ducau eta Olatz Prat lehen aldiz ariko dira beste artistekin batera kantatzen. Harkaitz Cano idazleak Kirmen Uriber hartuko dio

testigua, hala ere, biraren baitan Bernardo Atxagarekin batera txandakatzen joango dira, “emanaldi bakoitza bakarra bihurtuz, emanaldi bakoitzak bere puntu eta xarma izango du”, nabarmendu du Joxanjel Arbelaitez.

Berrikuntzak ez dira soilik artisten aldetik etorriko, kantaren errepertorioa ere berria da. Horrela jakinarazi du Joxanjel Arbelaitez: “badira gutxienez hamar kantu berri estreinatuko ditugunak”. Tartean Xabier Leteren zenbait abesti entzungo dira Tolosako Leidor aretoan, beste asko euskal beste artista askorenak eta baita mundu mailako kanta ezagunak lehen aldiz euskaraz entzungo direnak ere. Espektakulua azken batean Euskal Herriko lehen mailako artistak bilduko ditu errepertorio komun baten bai-

"Sortuko dira besteak 2013"
sarrera bikoitzen zozketa

Irabazleak:
Juan Ignacio Imaz
Rosarito Odriozola

*Irakurle Taldea.
Ekaineko tertulia*

*Eguna: ekainak 20, osteguna
Ordua: 19.30
Lekua: Tolosako Kultur Etxea*

*Irakurri beharreko liburua:
"Alkasoroko Benta"
Mikel Taberna
bertan izango da*

Galtzaundi 385
13ko ekainak 7

besteak

izan da: "Sortuko dira besteak" biraren jarraitzaile sutsua izan da, ez zuen kantaldi batean ere kale egin. Aurtengo lehen hau berari eskaini nahi genion, berak esaten baitzigun honako bira ez genuela inoiz utzi behar, bere hitzei jarraituz aurrera egingo dugu, publikoaren erantzuna baldin badugu behintzat".

KMK13

Ezin ahaztu gainera, kontzertua KMK13ren egitarauaren baitan kokatzen dela. Joxanjel Arbelaitzek azpimarratu bezala, "kolaborazio eta elkarlanean aritzeko filosofiarekin bat egiten dugulako; gure proposamenarekin Euskal Herrian aurrera tiratzeko modu eder

eta eraikitzaile batean ados dauden guztiekin, esku hartze-ko espiritu eta gogoia dugu".

Azken batean, Joxeanjel Arbelaitzen beraren izaera horrelakoa baita, izatez abokatua da baina 18 urte bete zituenetik euskal artearen promozio lanetan dihardu: "beti gustatu izan zait, premia badagoela uste dut, ezin da herri bat aurrera atera artisten kantua, poesia eta liburu ederrik gabe. Eta euskaldun bezala, beharrezkoa dugu horiek kontsumitzea.

Askotan bertakoa ez da gehiegi estimatzen, horregatik "Sortuko dira besteak" espektakulua Euskal Herriko selekzio gisara kanpora

ere eramango dugu: Paris, Stockholm,artzelona edota Londresera".



bertan elaboratutako
esneki eta txerriki
natural naturalak

www.mahalanaturala.com || 943 67 07 24



Osagaiak
Desarrolloak
Instalakuntzak

BUDARI KALEA 15-BEHEA TEL.: 943 650 199
TOLOSA (GIPUZKOA) FAXA: 943 653 916

jarri zure
publizitatea
Galtzaundi
aldizkarian

Bidera Publizitatea
661 678 818
aetxaniz@bidera.eu

enpresa katalogoak
aldizkariak
logotipoak
liburuak
publizitate komertziala
kartelak
egutegiak
bannerrak

antza
komunikazio grafikoa

Zirkuitu Ibilbidea, 2 / 2. pabiloia · 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
Tel.: 943 370 738 / Faxe: 943 372 226 · info@antza.com · www.antza.com

Arteka

ESKULANAK

Nafarroa etorbidea, 10
TOLOSA
Tel.: 943 655 577



Arostegieta kalea, 2 - Tolosa



25 urtez

Tolosako Adiskideok Kirol Elkarteak bere 25. urteurrena azaroan beteko badu ere, dagoneko ospakizunetan murgilduta dago. TAKEren historia lehen eskutik ezagutzeko aukera izan du Galtzaundik, urte hauetan guztietan lehendakari lanetan aritu den Koldo Arsuaga hizlari izan baitu.

Naiara Roldan de Aranguiz

2012-2013 denboraldiak kirol emaitzetan bidelagun izan du TAKEk. Horrenbestez, historia luzea ospatzeaz gain, aurtengo denboraldiaz gozatzeko moduan da taldea.

1988. urtean sortu zen legalki gaur egun horren ezaguna den Tolosako Adiskideok Kirol Elkartea (TAKE). Laskorainen eta Eskolopioetan aritzen ziren taldeak talde berri honen aurrendariak izan ziren. Eskolopioetan jokalariei euren kasa aritzeko eskatu zieten eta lege berriei jarraiki TAKE-

ren sorreran murgildu ziren ezinbestean. Koldo Arsuagak gogoratzen du Eskolapioekin elkarlana jarraitu egin zela zenbait urtetan baina garai horretan hasi zirela "talde filosofia garatzen, autonomoak izaten".

TAKEren hastapenetan goi mailako taldeetan jarri zituzten indarrak bertako ordezkariak. Hasierako urtetan gizonezkoen taldeak baino ez ziren aritzen Tolosako saskibaloiairen ordezkari gisara. Hastapeneko taldeak erregio-

TAKE saskiratzen

nal mailan aritu ziren hainbat denboraldietan, autonomi-koetara igotzeko aukera ere izan zuten eta "taldeak beste dimentsio bat hartu zuen", Arsuagak gogoratzen duen bezala: "jende asko joaten zen partiduak ikustera, polikiroldegia bete egiten genuen eta gaztetxoak erraz erakartzen genituen taldera". Maila horretan hainbat urtez aritu ostean, nazional mailara igotzea ere iritsi zen TAKE. Hala ere, orduan krisialdi garaia iritsi zen TAKEra, lehen taldea maila oso altuan kokaturik bazegoen ere, beheko taldeetan hutsune ugari zeudenez, Tolosako taldea "hausnarketa" garai batean murgildu zen: "basea ez genuen ondo lantzen, Tolosaldeetik kanpoko jokalaririk hasi ziren gurean, taldeak nortasuna galdu zuen eta erabaki zailak hartzeko unea iritsi zen".

Izan ere, 2002. urtean TAKEko zuzendaritza hausnarketa garaian murgildu eta hainbat erabaki hartu zituen taldea berregituratzen hasteko: nazional mailan aritzen zen lehen talde hori mailaz jaistea erabaki zuten, behetik la-

nean hasteko aukera izateko. "TAKE Tolosako taldea izanik, Tolosaldeko jendearekin lan egin behar genuela erabaki genuen, zerbait gaizki egiten ari ginela jabetu ginen", dio irmoki Koldo Arsuagak. Lehen taldeak nazional maila berreskuratzeak lau urteko lana suposatu zion Tolosako taldeari. Eta gainera, bestelako lanak egiteko beta ere eskaini zion: TAKE eskolaren sorrera, nesken taldeen sorrera, etab. iritsi baitziren urte horietan. Garaian hartutako erabaki egokiaz mintzatzen da egun Koldo Arsuaga eta harrotasunez esan dezake taldeak gaur egun bai neska eta bai mutiletan ere maila guztietako taldeak osatu dituela, piramide guztia beteta duela, alegia.

17 talde, 250 jokalarik

Eguno datuak eskuartean hartu eta talde handi baten datuak direla azpimarratu behar: 17 talde eta 250 jokalarik, eskola kanpo utzita, gainera. Gaur egun, saskibaloia jokatzeraz gerturatzen diren haurrak lehen baino gazteago hasten omen dira, 9 urteren

bueltan, eta horrek ere mesede egiten dio TAKEri: "oso urte garrantzitsuak dira haurrek saskibaloian jolastan ikasteko". Horrenbestez, TAKE eskolaren pisua geroz eta handiagoa da.

Talde bakoitzak bere *sponsorra* izaten du, txapelketari aurre egiteko gastuak altuak direlako. *Sponsorrak* eskuratzea "lan zaila" da Arsuagaren esanetan. Hala ere, talde tolosarrak maila bakoitzean *sponsor* ezberdinak izaten ahalegintzen da: "*sponsor* printzipal bat eduki beharrean, *sponsor* txikiak izaten ahalegintzen gara; inportantea da babesle bakarraren menpe ez egotea". Taldeak ordainetan hitzarmenean sinatutakoa eskaintzen dio iragarleari, webgunean, komunikabideetan presentzia izaten ahalegintzen dira TAKEtik.

Azken baten, egun TAKEk izena badu eta horrek ere mesede egiten die bere iragarleei. TAKEren izaerarekin lotzekoa da euskararekin duen konpromisoa: euskaraz aritzen den taldea da Tolosakoa. Entrenadoreak euskaldunak dira, entrenamenduak euskaraz



lantzen dira, partaideen arteko tratua euskaraz egiten da, webgunea euskaraz lantzen da... Arazo bakarra Federazioak aurkeztu du, erakunde honekin harremanak lantzeko orduan gaztelaniara jo behar izaten du taldeak. Tolosako kirol munduan erreferentzia izan daiteke TAKE, kirol munduan euskaraz erabat aritzen baita. Koldo Arsuagak argi



10 dauka jokalaria eta entrenatzai-
leen adinak horretan lagun-
du duela: "gaur egun ikastaro
guztiak gainera euskaraz egin
daitezke, saskibaloia euskaraz
ikasten da eta taldekideen arte-
teko hizkuntza euskara denez,
egun TAKE euskaraz bizi da.
Gakoa tekniko gazteak eduki-
tzea da, euren hizkuntza eus-
kara delako. Duela 10 urtetik
hona egoera erabat aldatu da
eta hori pozgarria da".

25 urteak ospatzeko bidea

25 urtetan eman eta jaso-
takoa gogoratzeko garaia da
TAKErentzat. Hala ere, ibilbide
luzearen ospakizunen zerren-
dan murgildu aurretik aurtengo
denboraldiak eskainitako
kirol lorpenak azpimarratze-
ko unea ere bada. Bigarren
taldeak Euskal Autonomi Erki-
degoko ligara pasatzeko *Final
Four*-a Tolosan bertan irabazi
berri du, lehen taldeak den-
boraldia ondo hasi ez bazuen
ere, egoera gainditu eta EBA
ligara igotzeko bi partidu fal-
ta izan zaizkio, junior neskak
Gipuzkoako txapelketaren fi-
nalera iritsi dira...

Ezbairik gabe, txalotzeko
moduko emaitzak dira Koldo
Arsuagaren esanetan. Emait-
zak ikusita, aldeztu aurretik
egin beharreko lanaz araka-
tu nahi izan du Galtzaundik.
"Orain dela hamarkada bat
garbi izan genuen entrena-
tzaile eta teknikarietan inber-
titu behar genuela. Orduan
esfortzu handia egin genuen
jendea kurtsoetara bidaltzen
eta baita kurtsoak Tolosara
ekartzen ere. Gai horrekin
oso zorrotzak izan gara. Gure
jendeak kualifikazioa lortzea
nahi genuen", azpimarratzen
du alde batetik Koldo Arsu-
agak.

Baina emaitza on hauek es-
kuratu ahal izateko beste alor
bat ere landu dutela zehaztu
du Arsuagak: "taldea 50 joka-
lari izatetik, 250 izatera pasa
da. Horrek lan ikaragarria eka-
rri du eta horregatik lanak ba-
natzen ere ikasi dugu; lan tek-
nikoak, lan administratiboak,
zuzendaritza lanak pertsona
ezberdinen artean banatzen
ikasi dugu".

25. urteurrena ospatzeko
bide ugari jorratu ditu TAKEk,

batzuk talde barrura begira
eta beste batzuk ordea herria-
ri begira, baina beti ere "argi
izanik, TAKErentzat dela ospa-
tu beharrekoa". Hona hemen
dagoneko hasi diren ospa-
kizunen zerrenda: Gipuzkoa
Basket Clubeko (GBC) ent-
renatzaile Sito Alonso TAKEko
entrenatzaileei *masterclass*-a
eskaini zien bi ordu t'erdiz,
Final Four Erregionala Tolosa-
ra ekarri eta bertako taldeak
irabazi zuen, hauek dagoe-
neko pasatakoak. Eta ospatu
beharreko begira, dato-
rren larunbatean, ekainaren
8an, eguraldiak ahalbidetzen
badu, 4x4 Saski Gauda ospa-
tuko du Tolosak. Euskal Herri
plazan, arratsaldeko 18.00e-
tatik goizeko 02.00ak arte,
goi mailako neska zein mutil
saskibaloitako taldeak lehian ari-
ko dira: Iraurgi, Easo eta Zarautz
gizonezkoetan eta Ardoi, Bera
Bera UPV, Caja Vital UPV eta
Gernika emakumezkoetan.

Udara pasata, 25. urteurre-
neko ospakizunekin jarrai-
tzeko intentzioa du Tolosako
saskibaloitako taldeak. Irailean
taldekide izandako sexu eta

adin ezberdineko pertsonen
egindako taldeak osatu eta
arratsaldeko partiduak jolas-
tuko dira Plaza Berrian, "elkar
ezagutzeko eta disfrutatzeko".
Eta azaroaren 9an, 25. urteu-
rrenaren egunean, larunbata
dela probesturik, bazkari-fes-
ta ospatuko du TAKEk.

Bestelako jarduerak

Ekainaren 17tik 20ra bitar-
tean TAKE Kanpusa garatu-
ko da. Egutegiko arratsaldeko
15.30-18.00 bitartean Usabal
kiroldegian, 1999-2005 urte
bitartean jaiotako haurrek
saskibaloiaz gozatzeko mo-
dua izango dute. TAKE es-
kolan aritzen direnek 5 euro
ordaindu beharko dituzte
eta gainontzekoek 8 euro.
Izena emateko aukera dago
takesb@takesb.com helbide
elektronikoaren bitartez. Kan-
pus honen egitekoa Arsu-
garen esanetan, "jendea era-
kartzeko da, hurrengo urtera
begira TAKE eskolara jendea
erakartzeko modua, alegia".
Haurrek saskibaloian ikasteaz
gain, ondo pasatzeko bidea
dute eta baita Lander Lasa



Galtzaundi 385
13ko ekainak 7



jokalari profesionala gertutik ezagutzeko parada ere. "Lander Lasa TAKEko jokalarien erreferentzia da. ACB guztian gipuzkoar hiru jokalarik daude eta haietariko bat Lander Lasa da, TAKEn hezitakoa, ohorea da guretzat", dio harrotasunez taldeko lehendakariak.

Uda garaian ospatzen diren bestelako jarduerekin jarraiturik, kanpo kanpusak ere aipatzekoak dira. Ribadeoko (Galizia) taldearekin hitzarmena du TAKEk eta jokalariek udan hara joateko aukera dute. Gainontzeko urtetan talde bakoitzak irteera bat antolatzen zuen baina egungo

krisi ekonomikoaz jabeturik, familia ezberdinen egoerari erreparatuta, aipatu irteerak alde batera utzi eta Ribadeoko kanpusa bezalako aukera indibiduala zabaldu du aurtent Tolosako taldeak, parte hartzea norbanakoaren esku utziz.

Urtean zehar, hala ere, bestelako jarduera asko eta asko antolatzen ditu Tolosako Adiskideok Kirol Elkarateak. Horietariko bat, inguruko punta-puntako saskibaloitardak ikustera joatearena da. Irteerak antolatu izaten dira bai Gasteizera eta baita Donostiara ere. Laboral Kutxa

eta GBC taldeak txapelketa nagusietan ikusi eta babesa ematera joaten dira TAKEko jokalariek, ACB ligan eta Euroligan. "Oso harreman ona dugu Baskoniarekin eta GBC-rekin. Sarrerak eskaini izaten dizkigute, eskolako jendea eramaten dugu, atsedendietan kantxa nagusi horietan jolasteko aukera ematen diete gure jokalariei eta urtero oso erantzun ona jasotzen dugu".

25 urteko bidea ospatzen ari da TAKE, eguneroko lanak beste horrenbeste ospatzeko bidea emango dio Tolosako saskibaloitaldeari. ©

Beti Nahi
galtzaundi

Garaian garaiko janariak
eta arraikieta bereziak

Tel.: 943 671 920
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa

GORRI

Paper manipulaziorako
makina eraikuntza

Konponketa
eta mantenimenduak

Apatta industrialdea.
Baratzondo D 26. Ibarra
Tel.: 943 671 590.
Faxa: 943 673 916

Mikel Taberna Galtzaundi irakurle taldean

Eguna: ekainak 20, osteguna
Ordua: 19.30
Lekua: Tolosako Kultur Etxea
Irakurri beharreko liburua:
"Alkasoroko Benta"



AMAIA PEREZ
zbkia. GZ-1919

Senpere kalea, 7
20200 Beasain
Tel. 675 634 329



Izar Galaktik

Hirukide Ikastetxeko DBH 4. mailako Teknologiaiko ikasleak egindako lanaz harro egoteko moduan daude.

Jabi Luengo irakasleak zuzenduta "Izar Galaktik" proiektua gauzatu dute hirugarren ikasturtez. Heliozko globoa "espaziora" bota eta azterketarako datuak biltzeaz gain, irudi ikusgarriak ere eskuratu dituzte.

Naiara Roldan de Arango

Guztira, DHH 4. mailako Teknologia hautazko ikasgaia osatzen duten hamar ikasleek parte hartu dute proiektuan. Jabi Luengok "Izar Galaktik"-en berri ematerakoan hurrengo urtera begira proiektuarekin jarraitze-ko intentzioa dutela azaldu du, beti ere, urtetik urtera berri- sunak gehituz.

Zertan datza "Izar Galaktik" proiektua?

Duela hiru urte Kataluniako ikastetxe batean garatu zuten proiektua *blog* batean ikusi nuen eta zoragarria iruditu zitzaidan. Kontua heliozko globo bat zerura botatzea zen, globoak kutxa txiki bat zeraman, bideoak eta argazkiak atera ahal izateko. Ikasleei-

proposatu eta zoratuta nengoela esan zidaten. Ondoren, baliabideak aztertuta, taldeetan banatu, materialak eskuratzen hasi eta poliki-poliki lanean hasi ginen.

Duela bi urte, lehenengoz bota genuen globoa airera, desastre hutsa izan zen. Bi globo eraman genituen baina bat ez zen gora igo eta bestea haizeak eraman zuen, Tuter inguruan aritu ginen orduan. Lur-jota geratu ginen baina ikasleek berehala beste saiakera bat egiteko proposamena luzatu zuten. Indarrak hartu eta lanean hasi ginen.

Handik bi hilabetera bigarren saiakera egin genuen. Tuteran ondotik, Valtieratik bota genuen eta oso ondo ateratu zen. Globoak Belagua gainetik pasa eta muga bestaldean, Santa Engrazian erori zen.

Ikasturte berriarekin batera, iaz proiektuari berriro heldu genion. Hala ere, berrikuntza sartu nahi izan genuen. Globoko kutxa barruan plaka arduinoa jarritzea erabaki genuen, *software*

eta *hardware* librean oinarritutako plaka elektronikoko bat, alegia. Horri gure sentsoreak gehitu eta *data over-a* lortu genuen; globoa gora doan heinean kanpoko eta barruko tenperaturak eta presioa jasotzen ditu. Datu hauek azterketarako balio dute. Berrikuntza hauek guztiak eginda, baimenak eskatzeko momentua iritsi zenean, Aena-ren ezezkoa jaso genuen. Aurreko urtetan Euskalmet-en kontaktu bat egin nuen, hari laguntza eskatu eta baimenak haiek tramitatuko zutela esan ziguten. Euskalmet-ekin orduan, lankidetzara sortu zen. Haiek Urdaibaiko Bird Center-etik egunero neurketak egiteko globo meteorologiko bat botatzen dute, gure globoa haienarekin batera botatzea erabaki zen, haiek gure globoa grabatzeko eta gure euren.

Guneak, Urdaibaik ordea, zailtasun bat zekarren: estatistikoki bertatik botatutako globo gehienak itsasoan amaitzen dute. Guk globoa berreskuratu behar genuen, gure emaitzak, bideo-kamerak, etab. jaso ahal izateko. Jaurtiketa ia urtebete berandutu zen, eguraldi aproposik ez zegoelako. Azkenean 2013ko apirilaren 24a izan da aukeratutako eguna.

Horrenbeste denboran itxaron behar izanda, nolakoa izan da aipatu apirilaren 24a?

Euskalmet-ek bere globoa 13.00etan jaurti behar zuela bagenekien. Globoaren presta-



ketetan hasi aurretik Bird Center-eko instalazioak erakutsi zizkiguten eta ondoren globoaren prestaketekin hasi ginen. Momentua oso polita izan zen. Globoak airean ikusterakoan, arnasa hartu genuen. Ondoren berriro kezka sortu ziren, ondo funtzionatzeko ote zuen, leku egokian eroriko ote zen, GPS-arekin topatzeko ote genuen... GPS-ak 10 minuturo datuak bidaltzen ditu, baina 10.000 metrotik gora GPS komertzialek ez dute funtzionatzen, GPS militarrek baino ez dute gaitasunik. Horrenbestez 10.000 metrotik gora ez genuen jakin non zegoen. Ondoren, globoak jaisten ari zela, GPS-ak beste koordenada bat eman zigun, datu bakarra ordea. Ez genuen jakin lurreratu ote zen... Markatu-tako tokira joan eta ez genuen globoak topatu. Etxera lur-jota iritsi ginen, Euskalmet-ek inguruko Udaletara ere deitu zuen globoaz galdezka.

Hurrengo goizean jaiki, ordenagailua piztu eta beste hainbat puntu markatu zituen GPS-ak. Berriro kotxea hartu eta inguru horretan topatu genuen.

Eskuratutako materialarekin bideo txiki bat editatu dugu, irudiak musikaz lagunduta. Euskalmet-ekoek beste bideo dibulgatzaileago bat lantzen ari dira, guk egin dugun lanarekin.

Ikasleek teoriarik ikasitakoa praktikara eramatekoan ikasteko aukera egokia dute...

Gure metodologiak proiektuetan du oinarria. Klase magistralak, momenturen batean egokiak izan daitezke baina teknologia praktikoki ikasi egin behar da. Proiektuetan oinarritutako metodologia hau bestelako esparruetan ere lantzen ahalegintzen da Hirukide.



Ikasleek erronken aurrean nola jokatu behar duten ikasi behar dute, norberaren bizitzarako baliagarria izanik. Teknologia irakasgaia *learning by doing* filosofian oinarrituta dago, egiten ari garela ikastea, alegia. Proiektu honen bitartez teknologia ikasteaz gain, IKTetan trebatu gara -YouTube bideoak igotzen ikasi dugu, *blog*-a kudeatzen ikasi dugu, *Twitter* kontua erabiltzen ikasi dugu eta bideoa editatzen ere... Ikasteko erarik egokiena proiektu bidezkoa da.

Zer nolako zailtasunei egin behar zaie aurre tankerako proiektu bat garatzeko orduan?

Besteek egindako lanetan asko oinarritu garenez, hasieratik guk ere *blog* bat egitea erabaki genuen, gure lana Interneten, edozeinen eskura jartzeko. Jasotakoa bueltan eman nahi genuen. Informazioa Interneten topa daiteke eta materialak

guztion eskura daude. Globo meteorologikoak 80 euro balio ditu, helioa ere erosi behar da, arduino plakari guk egindako sentoreak gehitu dizkiogu... Gauza guztietan bezala lanean jartzea da kontua. Akatsetatik asko ikasten da.


"Izar Galaktik" proiektuak sari bat ere ekarri dizue...

Iaz Don Boscok antolatzen dituen proiektu teknologikoen lehiaketan parte hartu genuen "Izar Galaktik" proiektuarekin eta irabazi genuen. Aurtin lehiaketa berean beste proiektu batekin irabazi dugu: arduino plakarekin jarraitu dugu eta ikasleek bere kasa lurrean, paretak jo gabe, ibiltzen den robot txikia garatu dute. Saria 3D inprimagailua izan da. Inprimagailua jaso aurretik dagoeneko horrekin ze proiektu landu dezakegun pentsatzen gaude!

Galtzaundi 385
13ko ekainak 7



Korreo, 39 20400 TOLOSA
Tel.: 943 671 414 Gipuzkoa



ZABALA
DESGUAZEAK
KUDEATZAILE BAIMENDUAK
EU2/111/04

BEOTIBAR INDUSTRIALDEA, 18 - BELAUNTZA
TEL./FAXA: 943 671 790 -
MUGIKORRA: 696 593 347

SANZ
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85

"Helduen %9, hartzen e

Juanjo Alustiza (Alegia, 1966) Geografia eta Historia ikasketak burutu ondoren, duela 20 urte hasi zen lanean Ibarako liburutegian. Hasiera hartan, ikastolako gimnasioan kokatu zen liburutegiak ez zuen ez ondare, eta ez toki egokirik irakurleak erakartzeko. Gaur egun Ibarako Benito Izagirre Kultur Etxean kokatua dago liburutegia, toki egokitua eta Ibarra moduko herriarentzat nahiko ongi hornitua. Bertan, 20.325 liburu eta aldizkari daude, 1.548 CD eta 1.887 DVD dituzte apaletan, eta 5 egunkari jasotzen dituzte egunero, ibartarrei irakurketarako bide aberasgarri eta zuzenena emateko.

Felix Aiestaran

Krisia tartean izanik, urtean zehar ekitaldi desberdinen bidez irakurle berriak erakartzeko hainbat saio egiten badira ere, azkenaldi honetan murriztu egin behar izan dituzte liburutegia gune bizia bihurtzeko egitasmo horiek. Hala ere, liburutegia hornitzeko bitarteko egokiak eskuratu ahal izan dituzte eta iaz 1.016 ale berri (liburu, DVD, CD...) bildu zituzten bertan.

Liburutegiko liburu mailegu kopurua etengabe hazi da. Helduen liburu mailegua, 1996an

500ekoa bazen ere, 2012an 3.000ko kopuruan kokatu zen.

Haurren mailegu kopuruei dagokienez, 1996an ia 500ean kokatzen bazen

ere, gaur egun ia 5.000n kokatzen da. Orotara, maileguan hartutako liburuaren %47,9a euskarazko liburuak izan dira, %48,9a espainieraz eta %3a beste hizkuntzetan. Oso adierazgarria da, helduek %9,1ak besterik ez dituela hartzen maileguan euskarazko liburuak.

Liburutegiko bazkide 1260 lagun dira. Ibarako biztanleriaren %28,2a, alegia. Liburutegiaren erabilera hazi egin da urtez urte eta iaz ia 13.000n kokatu zen. Erabiltzaileen artean %60,6a emakumezkoa da.

Ordenagailuaren erabilera ere etengabe hazi da. Teknologiaren zurrumbiloaren abiadura aintzat hartuta, etorkizuneko erronka teknologikoak ere eskaintzaren erronkari heldu nahi dio. Ibarako



Juanjo Alustiza: "1ak besterik ez ditu uskarazko liburuak"

Liburutegiak ordenagailuak, liburu elektronikoak eta beste hainbat baliabide eskaintzen ditu.

Egin dezagun Ibarako Liburutegiaren historia pittin bat...

Gutxi gora-behera jendeak emandako liburuarekin sortu zen 1987an Ibarako Liburutegia. Gaur egun, udaletxea dagoen tokian zeuden plazako eskoletan egon zen eta gero udaletxea eraikitzerakoan, Egiko ikastolako gimnasioan egon zen liburutegia. Plaza atera eta orduantxe, duela hoge urte hasi nintzen lanean Ibarako Liburutegian. Benito Izagirre Kultur Etxeko gaur egungo kokapenera 1995ean etorri ginen.

Hasiera hartan nolako liburutegia aurkitu zenuen?

Deprimitzekoa zen. Hasteko, ikastolako gimnasioa ez zen tokirik egokiena. Alde batetik, tokia bera ez zen egokitu eta bestetik, herritik kanpo zegoen. Bostak aldera, klaseak bukatuta, bertako eskola publiko eta ikastolako ikasleak izan ezik inor gutxi inguratzen zen liburutegira. Aurrekontua oso txikia zen.

Ordudanik nola osatu eta garatu da liburutegia?

Oso garrantzitsua izan zen

1995ean Benito Izagirre Kultur Etxera etorri izana. Tokia oso ondo egokitua dago. Hasiera hartan, ez zegoen ia aurrekonturik, baina jendea hurbiltzen hasi zen eta politikoak jabetu ziren, bultzatu beharreko zerbait zela eta aurrekontua handitzen hasi ziren. Liburutegia liburuz, ordenagailuz, fotokopiagailuz, *scanner*-ez... eta azken aldi honetan liburu elektronikoz ere, hornitu egin da.

Ibartarrak nola inguratu dira liburutegira?

Irakurleen hazkuntza progresiboa izan da. Kultur Etxera etorri ginenetik, etengabe hazi egin da erabiltzaileen kopurua. Iaz, 12.500 lagunek erabili zuten liburutegia, 1997an 3.000 erabiltzaile besterik ez ziren bitartean. Emakumezkoek gehiago erabiltzen dute liburutegia. Erabiltzaileen %60,6a emakumezkoa baita.

Gaztetxoek zenbateko erabilera egiten dute?

Gurasoekin etortzen diren zortzi urte bitartekoak dira nagusi liburu eta DVD erabiltzaileen artean.

Nola dago eratuta Ibarako Liburutegia?

Ez da herri txiki-txiki bateko li-

burutegia, baina azken finean herri bateko liburutegia da; beraz ez da oso handia. Heldu eta haurrentzat hornitua dagoen liburutegia da. Bi pisu ditugu: goikoan mugimendu handiena dago, helduentzako nobelak eta haur literatura bertan baitaude eta behean, helduak besterik ezin dira sartu. Bertan kontsulta liburuak daude.

Zenbat liburu daude?

Liburuak ez ezik, bertan dagoen beste materialarekin batera (DVDak, CDak....) 25.000 ale daude.

Zein da sailik hornituena?

Berrikuntza aldetik, sailik hornituenak haur literatura eta helduen nobelari dagozkienak dira. Interneta dela eta, kontsulta liburuak ez dute horrenbesteko eskaerarik. Musika aldetik CDak ditugu, baina dagoeneko ez ditugu erosten, formatu modura desfasatuta daudelako. Haur eta helduentzako film eta dokumentalak ere baditugu. Audiobisualak formatu modan beheeraka doaz. Garai batean audiobisualak maileguen %60a baziren ere, gaur egun %40a baino ez dira. DVDen erabilera igo zenean, jende asko erakarri zen eta liburuaren erabilera ere igo egin zen.

Zein alorrek du beharrik handiena, gutxien hornitua dagoelako edo?

Oso zaila da esaten. Helduek nobela besterik ez dute hartzen ia, eta alor hori ondo hornitua dago. Liburutegien arteko mailegua dago bestetik, eta hori oso ondo etorri zaigu liburutegi handiak ez garenoi. Hemen ez dugun liburuak beste liburutegiren baten bidez eskuratzeko bidea ematen duelako. Bost ume liburu bera eske etortzen badira, guk bakarra badugu, beste lauak beste liburutegietatik eskatuaz lortzen ditugu.

Liburuak erosteko zein irizpide erabiltzen duzue?

Irakurleak liburu berria eskatzen badu erosten saiatzen gara, eta zaharra eskatzen badu liburutegien arteko maileguaren bidez ekartzen dugu. Nobela historikoa, beltza, erromantikoa... denetik erosten saiatzen gara, oreka eutsi nahian. Haur literaturan euskarazkoak eskuratzeko ditugu, batez ere modan daudenak. Jendeak eskatzen dituen liburu komertzialak erosten ditugu.

Zenbateko presupostua duzue liburuak erosteko?

Erosketak egiteko 10.000 euro ditugu urtean. Ez dago gaizki, baina duela 3-4 urtekoaren erdia da.



Kontsulta liburuek zein toki izan behar dute liburutegian?

Garai batean entziklopediak ikaragarri erabiltzen ziren, baina gaur egun, ia ez dira erabiltzen. Gaurko entziklopedia *Wikipedia* da. Mendi eta turismo moduko liburu espezializatuak mugitzen dira, hala ere.

Umeek etxeko lanak egiteko toki egokia al da?

Ikastolako haurrek liburutegia ezagutu eta erabiltzen dute. Lanak egiten dituzte. Liburutegia jendea ezagutu, ligatu, bildu eta sozializatzeko lekua da.

Zenbateko erabilera dute ordenagailuek?

Hiru ordenagailu daude eta jendea zain egonez gero, ordu erdi jarraian erabil daiteke. Egunean 15-20 lagunek erabiltzen dituzte.

Helduek zenbateko erabilera izaten dute?

Ikasgelarik ez dagoenez jendea ez da ikastera etortzen. Etortzen den helduen irakurle-

ren perfila nobela irakurlea eta emakumezkoarena da. Lanak egitera etortzen da jendea, baina gutxiago.

Liburutegiek liburu dendei aurre egiten al diete?

Bada jendea liburutegian irakurri duen liburua gustatu eta etxean izan nahi duelako erosi egiten duena. Hori oso pertsonala da. Liburutegitik hartzea arriskurik gabeko apustua da. Hartu liburua eta ez bazaizu gustatzen utzi egiten duzu eta kito. Erosi eta ez bazaizu gustatzen, 20 euro akabo. Krisiarekin, lehen erosten zena orain liburutegira etortzen da.

Zein dira liburu irakurrienak?

Nobela komertzialak dira irakurrienak. Sarah Lark alemaniarren "En el País de la Nube Blanca" trilogia modukoak. Liburu lodiak bai, baina ez oso sakonak. Euskarazko liburuen artean ez da bat nabarmentzen.

Euskarazko liburuek ba al dute irakurlerik?

Haurren artean, bai. 12 urte arte bai, baina hortik aurrera geroz eta gutxiago. Iaz, helduen artean %9,1ak besterik ez zituen euskarazko liburuak maileguan hartu. Ibarra moduko inguru euskaldun eta abertzale batean, oso gutxi da. Oso esanguratsua da. Denera, liburutegiko erabiltzaileen %47ak hartzen ditu maileguan euskarazko liburuak.

Ibartarrek irakurtzen al dute?

Liburutegiko maileguen araberata bestekoan gaude. Ibartarren %28a osatzen duten 1.260 bazkide ditugu. Irakurtzen duena, askotan etortzen da.

Gazteek gero eta gutxiago irakurtzen dutenaren susmoa dut...

Tuenti, WhatsApp... dena irakurtzea da. Komunikatzearen oinarria idaztea eta irakurtzea da. Gazteek irakurri, irakurtzen dute, zer eta nola beste kontu bat da. Internetetik lanak egiterakoan dena kopiatu eta erantsi egiten dute. Ez dute lanaren haria lotzen.

Zer egin behar da irakurketa sustatzeko?

Irakurketa oso garrantzitsua denaren kontzientzia landu behar da ikastetxe, liburutegi eta batez ere txikitatik familian. Irakurketa ikasketako gaitzat jotzen dute gazteek. Irakurketa tailerak, taldeak, ipuin kontaketak... liburutegian era daitezke, baina horretarako dirua behar da. Liburutegian bakarrik nago. Ez dago eskaerarik ere. Aurreko urtean sei saio egin ziren liburutegian, baina aurten gutxiago izango dira, diru gutxiago dago eta.

Kontsultarako Internet, eta liburu digitala irakurtzeko, zein da liburutegiaren zeregina gaur egun?

Liburutegiaren lana informazioa bildu eta zabaltzea izan da beti. Zeregin hori Internetak betetzen du. Ordenagailu gehiago behar ditugu. Erabiltzaileak galdu ditugu liburu elektronikoa erosi dute-lako. Liburutegiak, maileguan uzteko, liburu elektroniko gehiago erosi beharko lituzke. Bi liburu elektroniko ditugu jendea nola erabiltzen diren erakusteko. Bakoitzean 30 titulu daude eta jendeak badu interesa, gehienetan hartuta daude. Paperezko liburua ez da desagertuko. Liburutegiak ere egokitu egin behar dira garai berrietara.

Ingeleseko liburuak asko irakurtzen al dira?

Tolosan Hizkuntza Eskola ireki dutenetik, nabari da beste hizkuntzetako liburuen eskaera handitu egin dela. Jendearen eskaeraz, *Speak Up* aldizkariaren harpidedun egin gara.

Nola dago osatuta liburutegien sarea?

Autonomia Erkidegoko liburutegi guztiak daude bertan, Bilbo eta Donostiakoak izan ezik. Denon materiala azaltzen den katalogoa dago eskura Interneten. Liburua eskatu edo epea luzatzeko eragiketak egiteko aukera ematen du.

Jendearen eskaera aintzat hartzen al da?

Bai, noski. Hau herri txikia da eta oso aberasgarria da jendearekiko dugun harremana, oso gertukoa baita. Bere eskaerak betetzen saiatzen gara. Liburu berriak edo aholkuak eskatzen dituzte adin guztietako erabiltzaileek.



Amaia Etxetxia
Nutrizio aholkularia

Baina zer dira koipeak? Koipeak, zelula guztietan (animalia zein landare-zeluletan) egoten dira, eta egiturazko funtzioak zein metabolismoak betetzen dituzte.

Koxk!

Koipe, olio eta hanturak

Koipeek bi jatorri dituzte:

- Animalia jatorria: haragi eta haragi-produktuetan, arrautza eta esnekietan.
- Landare jatorria: zenbait landaretako hazietan (ekilorea edo artoa), fruituetan (oliba, ahuakatea, kokoa, palma) eta fruitu lehorretan (kakahueteak, arbendolak).

Koipeek, energia eta oinarriko gantz-azidoak ematen dizkiote organismoari eta gainera, egiturazko funtzioak eta funtzio arautzaileak betetzen dituzte. Gaur, hanturarekin duten erlazioa azalduko dugu; izan ere, olioak eta koipeak, "prostaglandina" izeneko konposatu batzuen aitzindari dira eta hauek zenbait egoerekin erlazioa dutako erreakzioak estimulatu edo zuzentzen erantzule dira (adibidez, immunitatean, hanturan, koagulazioan etab.).

Adinaren berezko izaten diren gaixotasun deseroso eta baliogabetzen duten asko eta asko, hanturazko prozesuekin batera doaz. Adibidez, artritis, erreuma... baina baita hestetako arazoak, arnasketa ara-

zoak, alergikoak... Hauetan ere gutxiago edo gehiago, hantura agertzen da zenbait ehun edo mukosetan.

Faktore asko izan daitezke hantura hori sortarazten dutenak, baina hemen, sistema immunitarioak bere erreakzioen intentsitatea kontrolatu eta erregulatzeko duen ahalmena aztertuko dugu.

Zentzu honetan, azken urte hauetan, ikerketa asko argitaratu dira omega 3 izeneko gantz-azidoek prozesu artritikoetan duten eragin antiinflamatorioari buruz.

Gure organismoak, hanturen intentsitatea erregulatzeko nolabaiteko ahalmena du. Mekanismo erregulatzailer honetan, "prostaglandina" izeneko substantzia batzuk parte hartzen dute. Beraietako batzuk efektu estimulatzailer bat duten bitartean, beste batzuk kontrako efektua dute, eta honela, zenbait erreakzio kontrolatu eta modulatu dituzte. Adibidez, beroa, mina, gorritzea, etab. sortarazten dituzten erreakzioak.

Erreakzio hauek ez dira berez kaltegarriak. Izan ere, erreakzio guzti horien helburua min edo kalte bat konpontzea baita. Arazoa sortzen da, denbora pasatzen doan bitartean, arrazoi desberdinengatik hantura hori kronikoa bihurtzen denean.

Ikerketa guzti horiek ekarri duten berri ona, hauxe izan da: gure organismoan dauden prostaglandina horien maila edo kopurua, batez ere jaten dugunaren menpe dagoela. Zelulek, gure dietatik datorren lehengai batetik sintetizatzen dituzte prostaglandina horiek eta lehengai hauek oinarriko gantz-azidoak dira.

Talde desberdinetan sailkatzten dira:

- hantura estimulatu dute: hanturaren prozesuan eta plaketan agregazioan laguntzen duten prostaglandina batzuk (adibidez, azido arakidonikoa); animalia jatorrizkoak izaten dira, adibidez, haragi, esneki eta arrautzak.
- hantura erregulatu dute: hantura txikitzen, zelulen ugaritzean eta odoleko

koagulazioan parte hartzen dutenak; omega 3 bezala ezagutzen direnak. Bai arrai urdin eta baita zenbait hazi (liho eta kalabazarena) eta intxaurretan ere.

Omega 6 bezala ezagutzen direnak, zenbait hazietan aurkitzen dira (ekilore, sesamo, artoa, soja etab.). Hauen eragin antiinflamatorioari buruz, dirudenez momentuz, ikerketetan kontrako iritziak topatzen dira.

Ikerketa guztiak garbi azaltzen dutena hauxe da: garrantzitsuen beraien artean dagoen oreka da. Bakoitzak duen funtzioa elkarren osagarri baia (gure osasunaren arabera, batzuen edo besteen behar handiagoa izango dugu noski). Berraz, beti bezala, elikagai mota bat eta besteen arteko proportzioen orekan dago gakoa, hau da, koipe mota desberdinen balioketaren eta balioketaren ere.

Manosvivas, Gazteak eta adinduak elkarrekin



Hirukide Ikastetxeko Batxilergoko 1. maila

MANOSVIVAS proiektua
Hirukide Ikastetxeko
hainbat ikaslek eta
UZTURRE eta TOPIC
erakundeen arteko lan
bat izan da, belaunaldien
arteko harremanak
sendotzeko eta
elkarrengandik ikasteko.

Taldea Nerea Seguro, Edurne Beldarrain, Maria Lopez de Murillas, Mireia Borrachero, Leire Azkue, Miren Berasategi, Amaia Elizegi, Leire Iguaran eta Andrea Olazabalek osatzen dugu 2012-ko ikasturte hasieratik eta Hirukide Ikastetxeko Batxilergo 1.ko ikasleak gara.

Manosvivas proiektua Topic eta Hirukide ikastetxearen arteko hitzarmen bat izan zen hasieran, baina ondoren, Uzturreko egoitzarekin bat egin genuen. Proiektu honetan ba-

koitzak gure aletxoak jarri nahi izan dugu, belaunaldien arteko harremana bultzatzeko.

Batetik, Topic erakundea oso ezaguna da, ez Tolosan bakarrik, baita beste toki askotan ere. Nazioarteko Txotxongilo zentroak Euskal Herri plazan du bere egoitza. Bertan txotxongilo erakusketa eder bat dago, munduko hoberenatarikoa izendatu dutena. Dagoeneko hainbat sari jaso dituzte, izan ere, Europa osoan txotxongilo artearentzako zentro integral bakarra bai-

ta. Esperientziak, gogoetak eta lanak ikasi, erakutsi, ikertu, produzitu eta elkarbanatzeko leku bat, abangoardiako espazio eroso, funtzional batean eta goi mailako ekipamendua duena. Hainbat ekitaldi antolatzen dituzte, gehienbat haurrei bideratuak. Izan ere, antzerki mota hau umeeekin lotzen da gehienbat. Bestalde, txotxongilo museoari ere garrantzia handia ematen zaio eta beste hainbat herrialde-tatik ekarritako mota guztietako panpinak dituzte erakusgai.

Horrez gain, Tolosan hain famatua den txotxongiloaren aste hori antolatzen ere denbora luzea ematen dute, munduko txoko guztietatik titiriteroak ekartzeko, herritarrok disfruta dezagun.

Bestetik, Uzturre erakundea dago, Tolosako zaharren egoitzetako bat. Egoitza mota orok bezala, adineko pertsonen laguntza ematen die, batez ere autonomoei. Uneoro ekintzak antolatzen dituzte bertako pertsona adinduak aspertu ez daitezen, eta egunak ahalik eta hobekien igaro ditzaten. Gure proiektua, esaterako, nahi dutenek asteartero ordubete entretenigarri bat igaro zezaten onartu zuten. Gainera, logelak eta otorduak ematen zaizkie han bizi direnei. Hala ere, eguna igarotzera joaten denik ere badago, eta haiei ere zerbitzua ematen die, eguna entretenituta pasa dezaten.

Gure proiektua aurrera eramateko bi erakunde horien lagun-



antzezlanak txukuntzeari ekin genion, eta horretarako, Enkarni Genuaren laguntza izan genuen. Andre hau TOPIC erakundeko titiritera bat da, eta bere laguntza oso erabilgarria suertatu zitzaigun. Aholku pila bat eman zigun, txotxongiloen antzezlan batek nolakoa izan behar zuen jakin genezan.

Beraz, bizpahiru hilabeteko lanaren ondoren, proiektuaren bigarren atalera igaro ginen. Bigarren etapa horretako lehenengo egunean Uzturre bisitatu genuen instalazioak ikusteko eta bertako

tsonak osatua: hiru egoiliar eta hiruzpalau manoviven taldekoak. Talde bakoitzaren zeregina istorio txiki bat asmatzea izan zen, eta gero, beste jendearen aurrean aurkeztea. Egun hartan hasi ginen istorioa pixka bat kokatzen eta manoviva bakoitzari bere nortasuna eman genion. Asteak pasa ondoren, istorioa kokatuta

zegoela, egoiliarrek euren manovivak apaindu zituzten gure laguntzarekin. Horrela jarraitu genuen, asteartero lana zertxobait aurreratzen: eszenatokia prestatu, istorioari azken ukituak eman eta antzerkia ondo prestatu arte. Azkenean iritsi zen emanaldirako eguna, eta emaitza ezin hobea izan zela esan behar dugu. 

Karmele Kruzi, proiektuaren arduradunari galdezka

Nola sortu zen MANOSVIVAS proiektua?

Duela bi urte sortu zen, eta oso modu pertsonalean: ikastetxe batean proiektu bat bideratu nahi zuten eta, ikastetxe hartako arduraduna nire ahizpa zenez, elkarrekin zerbait egiteko gogoia genuen; ikastetxe hartan proiektu-pilotu gisa oso ondo ateratu zen eta deialdia egin genuen beste ikastetxetara, eta hortik handitzen eta zabaltzen joan da.

Zein aurreikuspen zenuen gure eskolarekiko?

Banekien oso ondo aterako zela, beste lan batzuk ere egin ditugulako zuekin eta eskarmentu ona daukagu; oso talde saiaturia izan zarete. Aurreikuspen handiak neuzkan eta erabat bete dira. Talde txikia izateak (12 neska) ere lagundu du. Normalean, berehala konturatzen zara lana nola aterako den taldearen arabera, eta hasieratik sentitu dut energia hori zuengan.

Zeintzuk ziren proiektu honen helburuak?

Helburuak desberdinak izan dira: batetik, zuek ondo pasatzea, ikastea zer den txotxon-

gilo bat; gainera, txotxongilo zehatz honen inguruan hainbat gauza ikastea. Ikastetxeak ere bere helburu propioak izan ditu: kasu honetan belaunaldien arteko proiektua: ikasleak beste belaunaldietako pertsonekin harremanetan jartzeari, Uzturreko egoiliarrek jende gaztearekin harremanetan jartzeari elkarrengandik ikasteko; parte-hartzaile bakoitzak bere helburu propioak dauzka eta azkenean, helburu oso desberdinen metaketa izan da; batek ez du bestea kentzen. Topic-eko helburua izan da txotxongilo mota hau zer den ikasleek ondo ikastea eta, gero, besteei erakustea.

Proiektu gehiago duzu esku artean?

Manosvivas proiektu honetan jarraitzeko asmotan gabilta: txotxongilo mota honek manipulazio berezia eskatzen du, motrizitate aldetik gaitasun berezia, zuen adineko jendeak eduki dezakeena; txotxongilo honek bere zailtasunak ditu baina bere emankortasuna ere bai. Proiektu honetan sakondu nahi dugu, honekin jarraituko dugu, akaso jende gehiagorekin, baina proiektu berarekin.



tza ezinbestekoa izan da: lehenik eta behin, Topic-etik Karmele Kruz izan genuen, txotxongiloak zer ziren aurkezteko. Powerpoint baten bitartez, mundu osoan erabiltzen diren txotxongilo mota batzuk erakutsi zizkigun, eta ondoren, Manosvivas txotxongiloetan zentratu ginen: bakoitzari mota honetako txotxongilo bana eman ziguten eta makina bat ariketa egin genituen, hauen erabilera nolakoa zen jakiteko. Behin gure eskuak manovivetara ohitu zirenean, eta ibiltzen edota keinu desberdinak egiten ikasi genuenean, gure txotxongiloari nortasuna ematen hasi gintzaizkion. Aurretik gure antzezlanak gutxi gorabehera planifikatuta bagenuen.

Hainbat saio erabili genituen txotxongiloa dekoratzen eta, aldi berean, gure eszenatokia izango zena prestatzen. Behin hori eginda,

egoiliarrekin lehenengo kontaktua izateko. Egun hartan bi koordinatzailek lagundu ziguten.

Hurrengo astean, gure antzezlanak aurkeztu genituen sala handi batean. Horrela, aurreko egunean komentatutako txotxongiloak zer ziren ikusteko aukera eman ginen. Behin antzezlanak bukatuta, taldeka jarri ginen egoiliarrekin hainbat mahaitan. Haiei ere pare bat manoviva eman genien, eta lehen mugimenduak egiteko aukera izan zuten. Batzuei benetan gustatu zitzaizen proiektua, eta imaginazio handia izan zuten inprobisatzeko. Hala ere, denek gusturako ezin izan, eta batzuei ez zitzaizen asko gustatu egin genuena. Hemen utzi genuen gure bigarren bisita.

Hurrengo asteartea iritsi, eta berriz ere Uzturrera: hiru talde egin genituen, bakoitza 7-8 per-

irakurri
entzun
Ikusi

hitzordua

Ekainaren 7tik 21era bitarteko

Alderik alde
Maite Gurrutxaga

Liburua izan bada baina ez irakurtzekoa baizik eta bertan azaldutako irudiez gozatzekoa. Aldean eramateko iruditegia da Maite Gurrutxagak proposatzen diguna, gomaz itxita-ko tamaina txikiko azal gogordun kaiera beltza. Begiak zorroztea dagokio irakurleari, ordea, marrazkiek gainezka egiten baitute alde guztietatik liburuxka barruko akuarela-paperezko orrialdeetan. Auto-erretratu gisara aurkeztu du egileak.

Egunsenti berri baten bila
Zain

Zain taldearen bigarren diskoak lau atal indartu ditu bereziki: melodiak, gitarrak, rock-popa eta hitzak. Aldiz, punk doinuen presentzia gutxitu da kantuetan zehar. Hala eta guztiz ere, poparen melodiak eta rockaren abiadura era goxoan uztartu ditu.

Tortila
Iñigo Lopez

Film laburra. Bere senarrak ematen dizkion tratu txar eta irainak direla eta, emakume batek harremanak bukatzea erabakitzen du. Lekeitioko Euskal Zine Bileran 2012. urtean 2. saria eskuratu zuen.

Haurrak

Erreka Mari. Ekainak 8, ostirala. Euskal Herriko azken lamia. 4 urtetik gorakoentzat, euskaraz, txalapartarekin. Tolosa, Topic. 18.30

Dantza

Alurr Eguna. Ekainak 8, ostirala. Alurr Dantza Taldeak antolatuta. Ibarra

Kultur Etxeko Dantza Jaialdia. Ekainak 15, larunbata. Tolosa, Leidor. 18.00



Kirola

Saskibaloia txapelketa. 4x4. Ekainak 8, ostirala. Gipuzkoa eta Erriego eliteko zenbait talderen arteko txapelketa. 4na neska eta mutil talde. Tolosa, Euskal Herria plaza. 18.00

Ospakizuna

Alarde Napoleonikoa. Ekainak 9, igandea. Tolosako Musika Bandaren kontzertua. Tolosa, Musika Eskola. 11.30

Languerre Festa. Ekainak 9, igandea. Garai bateko Languerre festa berreskuratuko da. Alegia

Jubilatuaren bazkaria. Ekainak 9, igandea. Meza, toka jokoa, bazkaria eta bingoa. Alkiza

Uxola Sarien sari banaketa. Ekainak 12, asteazkena. Tolosa, Topic. 17.30

Ibarrako Gazte Festak. Ekainak 14-16. Gazte Asanbladak antolatuta. Ibarra

Anoetako Jaiak

Ekainak 9, igandea. Txirindulari lasterketa. Mikel Oiarzabal eta Andoni Urkolaren omenez. 16.00

Hitzaldia

Joseba Barandiaran. Ekainak 11, asteartea. Tolosa, Kultur Etxea. Tolosaldea Garatzen-Lehiberri antolatuta

Gaixotasun mentala duten pertsonen familiarrentzako ikastaroa. Ekainak 20, osteguna. Hizlariak: Iker Arrizabalaga eta

Veronica Pazos. Doan. Interesatuek Agifesen egoitzan eman behar dute izena (943 474337). Tolosa, Kultur Etxea. 18.30

Erakusketa

Kantu Sosegatua. Juan Gabriel Vich. Pintura eta eskultura. Ekainak 14 bitartean. Tolosa, Aranburu Jauregia

Beantatuz. Ekainak 15, larunbata. Graffiti eta mural erakusketa. Trianguloan 14.00-18.00 bitartean mural erakusketa eta tailerra 11.00-21.00 herrian zehar aukeraturiko pareta ezberdinetan mural eta graffiti erakusketa.



Zinea

Iñigo Cabacas-en dokumentalaren emisioa. Ekainak 14, ostirala. Tolosa, Kultur Etxea. 20.00

Kontzertua

Hodeiertz. Oroith. Ekainak 14, ostirala. Tolosa, Santa Klara Komunitua. 20.00

TOPAk antolaturiko kontzertua. Ekainak 15, larunbata. Tolosa, Plaza Berria. 21.00

Sortuko dira besteak. Unai Eloorrieta, Mikel Urdangarin, Olatz Prat, Arantza Irazusta, Pier Paul Berzais, Amets Arzallus eta Alex



Sardui. KMK13 ekimena. Tolosa, Leidor. 20.30

Azoka

Sanjoanetako azoka. Ekainak 15, larunbata. Tolosa

Artisau eta janari azoka. Ekainak 16, igandea. Irura. 10.00-14.00

langile eta langabetuentzat ikastaroak, doanik.

HEZKUNTZAK DIRUZLAGUNDUA
Erdi eta goi mailako heziketa zikloak.
Matrikula-epaia: 2013ko uztailaren 8tik 12ra.

Prestakuntzan badakizu nora jo?
Ikastn zerbitzua eskualdeko pertsonen ikaskuntza aukerak bideratu eta orientazioa eskaintzeko da eta gizartera egokitze beharrezko gaitasun, jarrera eta motibazioa lantzeko bidean dauden pertsonen laguntzeko sortzen da.

Prestakuntza guztira norabide bakar batean:
www.ikastn.com



Gure ikastaro eskaintza ezagutu nahi duzu?
Jo ezazu Tolosaldea GLHBko bulegora.
Santa Luzia 17 - 20400 Tolosa
Telefonoa: 943.65.11.47 - 615.775.678

idazkaritza@tolosaldea.com
www.tolosaldea.com

info@ikastn.com
www.ikastn.com



Goardiako farmaziak

Ostirala, 7
Morant R.
(Zabalarreta, 1)
Tolosa

Larunbata, 8
Bronte C.
(Korroio, 20)
Tolosa

Igandea, 9
Azpiroz L.
(Amaroz 9)
Tolosa

Astelehena, 10
Lejeune, Leyre
Euskal Herria, 46
Ibarra

Astearte, 11
Olarreaga I.
(Korroio kalea 2)
Tolosa

Asteazkena, 12
Morant R.
(Zabalarreta, 1)
Tolosa

Osteguna, 13
Iturrioz, I.
(Euskal Herria, 3)
Ibarra

Ostirala, 14
Bronte C.
(Korroio, 20)
Tolosa

Larunbata, 15
Echeveste J.M.
(Gernikako arbola 3)
Tolosa

Igandea, 16
Olarreaga M.
(Martin J. Iraola, 10))
Tolosa

Astelehena, 17
Bengoetxea E.
(Kale Nagusia, 7)
Tolosa

Astearte, 18
Bengoetxea E.
(Kale Nagusia, 7)
Tolosa

Asteazkena, 19
Lejeune, Leyre
Euskal Herria, 46
Ibarra

Osteguna, 20
Bronte C.
(Korroio, 20)
Tolosa

Ostirala, 21
Olarreaga I.
(Korroio kalea 2)
Tolosa

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketeta-Abaltzisketa-Albztur	Gernikako Arbola, hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(Iarrialdiak)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernialde	San Kosme San Damian	
Medikua	geriatrikoa	943 672 932
Baliarrain	Udaltzaingoa	943 675 858
Medikua	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
	Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
	Iurreamendi egoitza	943 670 325
	Larrialdiak, Suhiltzaileak	112
	DYA	943 672 536
Berastegi-Elduain	Gurutze Gorria	943 674 888
Medikua		943 651 425
Bidegoian	Ertzantza	943 673 022
Medikua	Tolosa Gasa	943 675 320
Irura	Lizartza	
Osasun zentroa	Medikua	943 682 077
Tolosa	Orendain	
Anbulatorioa, Iarriald.	Medikua	943 655 595
San Esteban, hitzordua	Orexa	
	Medikua	943 682 228

Galtzaundi 385
13ko ekainak 7



Nafarroa etorbidea, 13-behea
20400 Tolosa
Mobila: 670 417 922
Tel./Faxa: 943 650 313




ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Foruak, 5-bis • TOLOSA
Tel.: 943 652 712

jarri zure
publizitatea
Galtzaundi
aldizkarian

Bidera Publizitatea
661 678 818
aetxaniz@bidera.eu



Laskorain, 7 • TOLOSA
Tel.: 943 654 916

Muxutruk

Lana

• Ingeleseko eta frantseseko klaseak, bakar-ka edo taldeka. Maila ezberdinak. Irakasle tituluduna. 664 160 268

• Emakumea, etxeko lanak egiteko eta pertsona helduak zaintzeko prest. 688 642 137

• Etxeko lanak egiteko lan bila. Ana Mari Atxaga. 634 404 452

• Klase partikularrak. Maila guztiak, talde txikietan. Esperientzia. (Kristina). 652 739808

• Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo ume zaintzaile gisa aritzeko. 602 684094 (Amezketta)

• Ordenagailuak konpontzen dira. Sistema eragileen instalazioa, birusak, datu berreskuratzeak, hardware eta software arazoak. Prezio egokian. 622217736.

Etxebizitza

• 90m²-ko pisua salgai Anoetako solkorre kalean . Egongela handia, hiru logela, sukaldea, komuna, trasteroa, ganbara ta bi balkoi. 130.000€ . 688 887 178

Salgai

• Quads-a salgai. Gasgas K2 250 c.c. 2055 urtekoa, 2 laguntzako homologatua. Prezio interesgarria. 618 254960. Aritz.

• Villabonan ileapaindegia salgai edo alokairuan. Sartzeko prest. 630 099092

Erosketa

• Teutonia markako bigarren eskuko maxicossia erosiko nuke. Interesatuak 635708540 zenbakira deitu mesedez. Mila esker



aries

Martxoak 21-Apirilak 21

Zu eta zure bikotearen artean sortutako zailtasunak zuzendu dira eta aurrerantzean iraganean galdutakoa berreskuratuko duzu. Benetan egin nahi duzuna egiteko gaitasuna duzu. Datozen asteak bikainak izango dira.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21

Aktiboegi zabilta azken aldian, hartu beharreko babesa gogoan hartu eta kutsadura kontuekin tentuz ibili. Gertu dituzun horiengan gehiago pentsatu beharko zenuke. Zailtasunak ekiditeko ardura babeslerik egokiena izan daiteke.



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21

Pertsonaren bat zure mende bat izanez gero, pazientzia izango da egun haue-tako bidelaguna. Hilabete hasierarekin batera, egoera korapilotsuak sortu daitezke, diplomaziaz jokatu beharko duzu orduan.



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22

Azken egunetako energiek garapen ekonomiko era berrietara bideratzen zaituzte. Inbertsioa egin aurretik egoera ondo aztertu ezazu, aukera hobek iritsiko dira eta. Onena iristeko dago.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22

Mintzaldirako unea da. Garai batean nahi gabe mindu zenuen pertsona horri elkarrizketa zintzoa zor diozu. Egoera egonkorrean zaudenez oztopoa erraz gaindituko duzu.



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22

Osasuna zaindu ezazu, komeni ez zai-zuna ez ezazu jan. Arriskua gertuegi duzu. Edari alkoholdunak hartu ditue-naren kotxean ez zaitetz igo. Datozen egunotan tentuz ibili.



libra

Irailak 23-Urriak 22

Porrota eskuratzen dutenen kritika jasotzen baduzu, ez ezazu gaizki hartu. Inbidia jende askoren gaitza da. Zutaz hitz egiten dutenean era batera edo bestera zure lana ezagutzea ematen ari dira.



scorpio

Urriak 23-Azaroak 22

Buruan dituzun ideia zoragarri horiek aztertu beharko zenituzke. Hala ere, martxan jarri aurretik, mahai baten bueltan eseri, kalkulagailuari eragin eta jasotako emaitzak ondo aztertuta, tentuz jokatu beharko zenuke.



sagittarius

Azaroak 23-Abenduak 21

Bikotearekin ondo konponduko zaren toki batera joan zaitez, geroaldira begira oroitzen poztasunak sortuko dizki-zuen tokira. Sormena martxan jartzeko unea iritsi da, tentsioa poztasun iturri bihurtzen ikasiko duzu.



capricornius

Abenduak 22-Urtarrilak 20

Egun osasungarriak daude ate joka, eguneko ordu bakoitza ondo aprobetxatzen ikasi beharko zenuke. Ez ezazu burua besteen arazoekin bete, zure bizitza erritmoa orekatu ezazu. Zurean fokatu eta besteen alboratu ezazu.



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20

Datozen asteak lanbidearekin harremana duten materialak erosteko une aproposa da. Ezagutza zabaltzeko ikastaroren batean izena ematea ideia ona izan daiteke. Datozen egunotan egiten duzunak bere eragina izango du arlo profesionallean.



piscis

Otsailak 21-Martxoak 20

Mugimendu ekonomiko interesgarriak emango dira datozen egunotan, intuzioz jokatz gero, orain arte arazo zena amets bihurtu daiteke. Zure finantza egoera argituko da.



ikasmina HERRIZ-HERRI

TOLOSALDEA GLHBI-k Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako, Landa Gara-peneko eta Turismoko Departamenduarekin elkarlanean, IKASMINA: HERRIZ-HERRI ekimena abian jarri dute 12/13 ikasturte honetan. Esku hartze-ko lehentasun nagusiak hauek izan dira: ikaskuntzarako ingurune egokiak garatzea, gaitasunak eskuratzeko esparru aniztasuna onartzea eta ikas-kuntzaren hedapena eta balorizazio soziala sustatzea.

Bizitza Osoan Zeharreko Ikaskuntza giza ahalmena garatzea da, etengabeko laguntza-prozesu baten bidez; laguntza-prozesu horrek pertsonak bultzatzen ditu bizitza osoan beharrezko izango dituzten ezagutzak, trebetasunak, balioak eta jokaera bereganatzera eta horretan gaitzen ditu, konfiantzaz, sormenez, izpiritu kritikoaz eta gozamenaz gauza ditzaten, alderdi, egoera eta testuinguru guztietan. Ikaskuntza horren bidez, aukera-berdintasuna, gizarte kohesioa eta herritar aktiboak sustatzen ditugu.

Pertsona erdigunea eta ikaskuntza-prozesuaren protagonista duen ikuspegi horren barruan, hainbat ekintza eta jarduera antolatu ditu Ikasmina: herriz-herri ekimenak. Ondoren

laburtzen dira ikasturte honetan zehar lortutako emaitzak:

Eskualdeko nahiz eskualdez kanpoko eragile eta prestakuntza hornitzaileekin harremanak: 120.

Antolatutako prestakuntza-ekintzak/jarduerak: 5 (ondoren zehaztuta).

Guztira parte hartu duten ikasle kopurua: 1.011 ikasle.

2012.12.10

Alberto Cotok eskainitako “Zenbakien magia” hitzaldia.

Lau hitzaldi antolatu ziren, guztira 460 ikaslek parte hartuz.



2013.01.16 - 2013.03.04

Ikasmina: herriz-herri Bulego Ibiltaria. Bizitza osoan zeharreko ikaskuntzaren gizarteratzea helburu izanik, 29 udalerrietan barrena informazioa, orientazioa eta aholkularitza eskaini du izaera ibiltariko ekimen honek. Udalerrri bakoitzean 4 orduko zerbitzua eskaini du, guztira 116 orduko lanaldia zuzenduz. Guztira



355 pertsona artatu dira. Herri bakoitzean postontziak kokatu dira, herritarren prestakuntza beharrak jasotzeko asmoz. IKT-ez gain, honako bide arrunta erabil dezake herritarrek. Jasotako eskaerak aztertuko dira ekimenaren amaieran, ekainean.



2013.02.25 - 2013.04.19

Tolosako Udalarekin elkarlanean **Adineko pertsonen zaintzaileentzako oinarrizko euskara ikastaroa** antolatu zen, Emun Koop. eta Banaiz Bagara Elkartearen parte hartzearekin. 16 ikasle osatutako taldea eta 28 orduko iraupene-ko ikastaroa.



2013.05.07

Matematikak hizpide izan dira ekimen honetan, bi hitzaldi antolatu dira EHUKo irakasle Raúl Ibañez-ekin. Lehenengoa, irakasleei zuzendua “Matematikariok herensugeak harapatzen irakasten al dugu? (matematikak zer diren eta zertarako); eta bigarrena, gizarteari zuzendua, “Matematikak eta hedabideak” hizpide. Hitzaldi bakoitzean 90 ikaslek parte hartu zuten.



2013.06.07

Lehiberri Zentroarekin elkarlanean Tolosaldeko gazte titulu-tuei zuzendutako jardunaldian lan merkatuari buruzko informazioa eskaintzea, lan-bilaketa teknikak aztertzea teknologia berrien bitartez eta ekintzailetasuna izan ziren hizpide.

<http://ikasmina.tolosalde.com>



ikasekin@tolosaldea.com
Tel.943.65.11.47 – 615.775.678
Tolosalde GLHBI



TOLOSALDEA
GOIMAILAKO L. H. INSTITUTUA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismo Departamentua
Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo



BIRZIKLAGARRIA NAIZ.

Pentsaera, jarrerak, ohiturak... aldatzeko gai naiz. **Gipuzkoarrok 2016rako %60 birziklatzea lortu behar dugu.** Eta nik aldaketa horretan parte hartu nahi dut.

